

## **4.- PLANAREN HELBURUAK**

### **4.1.- LAA-EN LURRALDEA ANTOLATZEKO EREDUAREN ARLOKO IDENTIFIKAZIOA, JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN HIRIGINTZA-ARAUTZEARI DAGOKIONEZ.**

LAAak onartzearekin batera, lurraldean eragina duten arloko politika guztiek bete beharreko Lurraldea Antolatzeko Eredu orokorra ezarri zen.

Zehazki, jarduera ekonomikoetarako lurzuaren antolamenduari dagokionez, LAP honetatik eta LZPetatik ateratzen diren proposamen guztiak LAAetan ezarritako Lurralde Ereduan finkatzen den antolamendu-esparruan barne hartzea bermatu beharko da.

Beraz, Plan honen lehen helburua jarduera ekonomikoetarako lurzuaren antolamendu orokorrari lotutako uneko zehaztapen eta aldagai guztiak identifikatzea da, horien osotasunak itxuratzen baitu LAAek onartutako Lurraldea Antolatzeko Eredua. Ereduaren identifikazioa eta horren ezaugarri nagusiak 5.1 epigrafean azaltzen dira.

#### **4.2.- LURRALDEAREN ZATIKO PLANAK LANTZEKO PROZESURAKO KOORDINAZIO-TRESNA BAT EZARTzea**

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (9.4 epigrafea) xedatzen denez, Lurraldearen Zatiko Planek zehaztuko dituzte eskualde-egitura bakoitzeko ekonomia-jardueretarako lurzoru-premiak, betiere lurzoru-eskaria, LAAetako lurralde-eredua eta, industria-jarduerari dagokionez, Industria Politikako Plan Markoa kontuan hartuz. Horretarako, Lurraldearen Zatiko Planek, LAAen arabera, ondoko edukiak jasoko dituzte jarduera ekonomikoei dagokienez:

- a. Eskualde-egiturako ekonomia-jardueretarako lurzoru-eskariaren analisi kualitatiboa eta kuantitatiboa.
- b. Eskualde-egiturako ekonomia-jardueretarako lurzoruaren analisi eta diagnostiko zehatza.
- c. Lurzoru berria eskaintzeko eragiketa nagusien proposamena, lurzoru-eskaintzaren kokalekua eta ezaugarriak gutxi gorabehera adieraziz.
- d. Gaur egun dagoen industria berriz lekutzeko aukerei buruzko analisi, haren ezaugarriek hala aholkatzen badute.
- e. Proposatutako ekonomia-jarduerako eremuen tipologiei eta bestelako baldintzei buruzko gomendioak, udal-plangintzak zehaztu eta garatu beharrekoak.

Amaitzeko, LAAetan ezartzen denez (9.4.2 epigrafea), dagozkion Lurraldearen Zatiko Planak, udal-plangintzak edo, hala badagokio, arloko plangintzak idatzi artean, jarduera ekonomikoetarako lurzoruari buruzko politikan, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordea lurzoria kuantifikatzeko aplikatzen ari den irizpideak hartuko dira aintzat.

Beharrezkoa da, horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidego osorako analisi orokortua edukitzea, bai eskualde-egitura bakoitzean dagoen ekonomia-jardueretarako lurzoruaren eskaintza eta eskariaren oinarritzko kuantifikazioari dagozkion alderdiei buruz, eta bai eskualde-egitura bakoitzean planteatutako lurzoru-eskaintzen ezaugarri kualitatiboen arteko koordinazioari eta osagarritasunari buruz. Honela, lantzen diren Lurraldearen Zatiko Planetan ekonomia-jardueretarako lurzoria garatzearekin loturik planteatutako hirigintza-aurreikuspenek elkarrekin homogeneotasun kuantitatibo jakin bat izatea eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoaren antolamendu integratuaren testuinguruan arrazoizko osagarritasun-maila erdiestea ziurtatuko da.

Hori dela-eta, Lurraldearen Arloko Plan honen beste helburua bat da ekonomia-jardueretarako lurzoria hirigintzaren ikuspegitik orokorrean aintzat hartzea, Lurraldearen Zatiko Planak arrazoizko homogeneotasun- eta osagarritasun-mailarekin lantzeko prozesua era koordinatuan arautzeko laguntza-tresna gisa.

#### **4.3.- JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORU PUBLIKOA SORTZEKO ERAGIKETAK PROGRAMATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK ADIERAZTEA**

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan xedatzen da Erakunde Publikoek Ekonomia Jardueretarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana idatziko dela Euskal Autonomia Erkidego osorako eta bertan honako zehaztapen hauek ezarriko direla (9.5.2. epigrafean):

- a. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketak zein kokapenetan gauzatuko diren identifikatuko du.
- b. Adierazitako jarduketak lurraldearen gune jakin bakoitzean hartuko duen lurzoru-gainazalaren kuantifikazioa eta jarduketa bakoitzak bete beharko dituen ezaugarrien zehaztapena.
- c. Beharrezko inbertsioen programazioa eta proposatutako esku-hartze publikoen ikuspegia eta bideragarritasuna aditzera emango dituen azterlan ekonomikoa.

Beraz, Lurraldearen Arloko Planaren funtsezko helburua da planaren denbora-horizontean (16 urte) erakunde publikoek ekonomia-jardueretarako lurzoru sortzeko gauzatu beharreko eragiketak finkatzea.

Hautatutako eragiketak oinarritzeko asmoz, Lurraldearen Arloko Planaren lehen urrats batean (6.2 epigrafean) estrategikoak eta interes orokorrekoak direlako sustapen publikoko eragiketa gisa proposa daitezkeen esku-hartze mota desberdinak definitzen dira.

Ondoren (6.3 epigrafean), Euskal Autonomia Erkidegoan erakunde publikoek ekonomia-jardueretarako lurzoru sortzeko garatu beharreko eragiketa desberdinei buruzko proposamena egiten da, haien dimentsionamendua kuantifikatuz eta eragiketa-mota bakoitzaren ezaugarri orokorrak zehaztuz.

Erakunde publikoek lurzoru sortzeko aintzat hartu diren esku-hartzeak funtzionaltasun estrategikoko maila desberdinetako jardueri dagozkie eta lurralde-esparru desberdinetan dute eragina. Halaber, adierazi beharra dago aintzat hartutako eragiketa guztien artean, batzuk dagoeneko sustatzen edo garatzen ari direla, beste batzuk sortzen ari diren proiektuei dagozkiela eta, azkenik, beste batzuk esku-hartze estrategikoko proposamen berriei dagozkiela.

#### **4.4.- MERKATARITZAKO AZALERA HANDIAK LURRALDE-MAILAN SISTEMATIZATZEA**

Tamaina handiko saltokien, aisia-zentroen eta hirugarren sektoreko zerbitzu eta plataformen ezarpena hirigintzan eragin handia duen fenomeno da inolako zalantzarik gabe eta, horrenbestez, ezinbestekoa da behar bezala aztertu eta lurraldearen antolamenduaren eskumen-esparruan berariaz arautzea.

Arautze hori, jakina, mota honetako zentroi, merkataritza-jarduerara zuzendutako establezimenduak diren heinean, indarrean dagoen legeriaren arabera (7/2000 Legea, azaroaren 10ekoa, Merkataritza Jardueraren 7/1994 Legea aldatzekoa, eta 58/2001 Dekretua, martxoaren 27koa, merkataritzagune handiak ezarri, aldatu eta handitzekoa) dagokien arloko arautzearen osagarri gisa planteatu beharko da.

Beraz, merkataritza-gune handiak plangintza orokorraren eta lurraldearen antolamenduaren esparruan behar bezala integratuko direla bermatuko duen hirigintza-araudi bat proposatzea izango litzateke Lurraldearen Arloko Planaren berariazko helburua.

Horrenbestez, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan jadanik badauden edota sustatzeko azterlan aurreratua duten merkataritzako azalera handien ondorio den lurralde-problematika analizatzen da, izan ere azaleroz lurraldearen puntu adierazgarrietan daudela egiaztatzen baita, balio estrategiko handiko lurzoru-plataformak okupatuz eta komunikabideen sare orokorreko lotura nagusiak sostengutzat hartzen dituztela (7.1 epigrafea). Ondoren, mota honetako ekipamenduak hirigintza-arloan arautzeko proposamen bat adierazten da. Proposamen honek, merkataritzako azalera handiei dimentsio-eskala egokia esleituz eta lurralde osoan zehar banatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-geografia berri orekatu eta bateratuagoa taxutzea du helburu (7.2 epigrafea).